

# ZENBATERAINO NAIZ EUSKALTZALEA?

Egin test hau, eta jakin zein puntutaraino bizi duzun euskara... bihotzez, ahoz edo bihotz-ondoan gordeta.

Kalean lagun batekin egiten duzu topo. Zein hizkuntzatan hasten zara?	<ul style="list-style-type: none"><li>a) Beti euskaraz, nahiz eta erantzuna gaztelaniaz etorri.</li><li>b) Euskaraz, baina lagunak zer egiten duen ikusita, berera egokitzen naiz.</li><li>c) Normalean gaztelaniaz, erosoago sentitzen naiz.</li><li>d) "Kaixo" esaten dut...horrekin nahikoa, ezta?</li></ul>
Herriko jaietan, zer da zuretzat ezinbestekoa?	<ul style="list-style-type: none"><li>a) Giro euskalduna.</li><li>b) Lagunekin egotea, hizkuntza bigarren planoan geratzen da.</li><li>c) Kontzertuak eta parranda, euskaraz edo ez, berdin zait.</li><li>d) Euskal musikak ez du parrandarako balio.</li></ul>
WhatsAppeko talde batean zaude. Mezuak normalean...	<ul style="list-style-type: none"><li>a) Euskaraz idazten ditut, baita erantzunak gaztelaniaz badatoz ere.</li><li>b) Taldearen arabera moldatzen naiz.</li><li>c) Gaztelaniaz, errazagoa zait.</li><li>d) Gaztelaniaz idazten dut denek ulertzeko.</li></ul>
Kalean kartel bat ikusten duzu gaztelania hutsean. Zer egingo zenuke?	<ul style="list-style-type: none"><li>a) "Hau ezin da horrela izan!", Behatokira mezua idatziko dut.</li><li>b) "Beno... euskaraz ere egon zitekeen."</li><li>c) Ez naiz ohartu ere egiten zein hizkuntzatan dagoen.</li><li>d) Denok ulertzen badugu, zer axola du!</li></ul>
Euskara ikasteari edo hobetzen jarraitzeari buruz...	<ul style="list-style-type: none"><li>a) Egunero erabiltzea da modurik onena.</li><li>b) Gustatuko litzaidake gehiago erabiltzea.</li><li>c) Ulertzearekin nahikoa dut.</li><li>d) "No tengo tiempo para eso".</li></ul>
Herriko dendari batek euskaraz egiten dizu. Zuk...	<ul style="list-style-type: none"><li>a) Pozik erantzuten diot euskaraz.</li><li>b) Euskaraz saiatzen naiz, baina tartean gaztelania ateratzen zait.</li><li>c) Gaztelaniaz erantzuten diot, ohituragatik.</li><li>d) Ez dit graziarik egiten.</li></ul>
Ikastetxeko irteeran haurren zain zaude, lagunartean. Zein hizkuntzatan ari zarete?	<ul style="list-style-type: none"><li>a) Euskaraz, bai horixe!</li><li>b) Dagoeneko ez dakit zein hizkuntzatan ari naizen ere.</li><li>c) Guztiok euskaraz ulertzen badugu ere, gaztelaniaz ari gara hizketan.</li><li>d) Guztiok euskaraz ederki moldatzen bagara ere, gaztelaniaz ari gara.</li></ul>

# Emaitzak

**Gehienak A erantzunak badira...** Euskaltzale sutsua zara. Oiartzunen euskara ez da zuretzat hizkuntza bat bakarrik: etxea da. Euskaraz bizi zara, pentsatzen duzu eta (batzuetan) amestu ere bai.

**A eta B nahasian badira...** Euskaltzale praktikoa zara. Euskara maite duzu, baina eguneroko bizitzan malgua zara. Giroak eta testuinguruak asko baldintzatzen zaituzte.

**B eta C nagusitzen badira...** Euskaltzale potentziala. Euskara hor dago, badakizu garrantzitsua dela... baina oraindik urrats batzuk falta dira erabiltzaile aktibo izateko.

**Gehienak C edo D badira...** Euskara bihotzean (edo poltsikoan). Agian ez duzu askotan erabiltzen, baina test honek zer pentsatua eman badizu... zerbait mugitzen hasi da



## **EUSKARA LARRIALDIAN**

Euskara larrialdi egoeran dago. UEMAK argitaratutako ikerlan baten arabera, 2036rako euskararen ezagutza maila apalagoa izango litzateke, eta etxean nagusiki herritar gutxiagok erabiliko lukete. Beraz, euskararako joera berezkoa ez dutenek toki handiagoa hartuko lukete gizartean. Gainera, betiere aurreikusitakoa betez gero, euskara, historian lehen aldiz, sozialki nagusi den ia lurralde eremurik gabe geldituko litzateke, ARNASGUNERIK gabe, alegia. Gaur egun, ahultzen eta urritzen ari dira eremu horiek, eta txostenean ondorioztatu dute hamar urteren buruan ez dela izango euskararen erabilera %60tik gorakoa duen udalerririk.

**EUSKARA LARRIALDI LINGUISTIKOAN DAGO, NORBANAKO GISA NEURRIAK HARTZEN EZ BADITUGU, GUREAK EGIN DU. BERAZ, ZERTARAKO NAGO PREST?**

Ondorengo konpromisoak hartzeko prest nago:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.



**Oiartzungo euskalgintza**